

# JUANTXO-TXIKI ETA ZEURE JUSTIZIA

## AUR-EZIKETA (16)

*Justizia eta zuzentasuna* biak bat dira. Zuzentasuna, okerretik ez ibiltzea da. Zuzen eta oker, orra ibiltzeko bi era desberdiñak. Zuzen ibilli eta zuzen jokatu, okerrera jo gabe, orixe da justiziaren jokabidea.

Juantxo-txikirekin zuzen jokatu. Berak baditu bere eskubideak. Eskubide oiek zapaltzea, oker jokatzeari litzake eta justiziaren aurka. Bere eskubide guztiak ezagutu bear dituzu eta eskubide oiek onartu. Ezagutu, onartu eta betetzen saiatu.

\* \* \*

*Umetxoak bere buruan* argi gutxi izan arren, begiak irikitzea naikoa du zu berarekin oker jokatzeari zerala ezagutzeko. Injustiziak ezagutzeko aalmen berezia du, begiak irikitzearekin bakarrik.

Bere biotza irabaziko badezu, aurretik bere eskubideak zaindu bearoko dituzu, maitasunak eraginda. Ez duzu esaten umetxoak, zeureak, asko maite dituzula..? Orra maitasunaren oiñarrizko bat.

\* \* \*

*Indargea eta argala* duzu Juantxo-txiki eta bere eskubideak zaintzeko aiña ez da. Bere burua defenditzeko indarrak ez dualako, ez bere eskubideak oinperatu. Damutuko zaizu egunen batean.

Zergaitik? Berarekin zertan ari zeran konturatzen dalako eta eguna etorriko da zu argal eta bera indartsu izango zeratena. Zure egintzeetatik ikasi du oker jokatzeari eta berak ere zurekin oker jokatu du. Zeuk erakutsi diozu. Errukigarri izanen zera egun artan. Eta egun ori gertu dago.

\* \* \*

*Zure asarrerik ez* umearen kaltean lasaitu. Ez dezala berak zure umore txarra ordaindu. Asarre zaudenean ez eraso Juantxo-txikiri; batez ere bera ez danean zure asarrearen errudun. Izanda ere, kontuz.

\* \* \*

*Bakarra ez danan* Juantxo-txiki, guztiekin neurri berdiña erabili. Danak maitatuko dituzu neurri berean. Neurri batekin neurtu. Euren artean makalen bat balego, orduan berari Iaguntza eman geiago. Neurri berdiña begien aurrean ikustekoa izan dedilla. Bistan dagoena, izkutuko jokurik gabe.

Bestela jokatzuz, burrukaren azia aserrea sortarazten ari zera. Eta, zertan ari zeran, eurak konturatzen dira ondotox.

Neurri desberdiña argalantzako, gaxoentzako, atzeratuentzako. Euren mesedean. Beste guztiekin berdin jokatu neurri berdiñean eta neurri zuzenean.

ARRINDA'TAR ANES